


**ZER**  
**ALDIZKARIA**

401n. zenbakia  
2014 OTSAILA

**Bizkaitarrei  
Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

**Lourdes eta Paulo´ren  
Urrezko ezteguak 1963–2013  
eta txangolaritasunezko saria  
Praga, Budapest ta Biena´tik zear II.**



**LANDAJUELA,  
Anton, XIII. atala**



**IZADIA ZAINDU XII.**

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2013-2014 IKASTURTEA

### BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

### 46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa  
eta inprimaketa: Ibegrafik  
www.ibegrafik.com

# LANDAJUELA, Anton, XIII.



## Illak 12

Usain txarreko aizeak putz dagi. Kirioak indar-artega doguz, beste barik baña, il da eguna.

13gn illuntze baltzean aize negartiak bidea zabaldu gura dau lendik medar doguzan indarrak txepetxagotu gurarik. Lortuko dau.

14gn gabak baltzago ta illunago dirudi. Eriotzea gose da. Atzapar luze ta atzazkal makurrak gizon aragi billa ari dira. Aterik-ate dabil ago zuria janari gozoaren lorratzetik. Atietako morrollo koipe ga-beak asi dira atzera egiten, eta barruan zeñentzako deia izango ete dan zai gagozanoi dardar larria erasoten.

Batzuk emendik, andik beste batzuk, aurkitu dabez, azur edo azal, bear izan daben aparia ajolazkeriz eta bultzaka, ba daroadiez azken gabari agur egiteko gertua dan toki berezira.

42 dira Kristo gurutzatuaren aurrean eriotzaren besarkadaren zai dagozanak. Surrumurrua da 7 dirala urkamendirako. Enparauen azken ikarak Derion izango dabe lendik odoldua dagon toki aukeratu eta bizitza ontatik bestera igaroteko zubia. Onein arteko Larrondotar Imanol.

15gn goizeko argi-izpiakaz batean, oraindik lo-bietan gagozala, eriotzagaz burruka gogorrean diñardun gizonaren ai! garratzuak jo gaitu belarrietan. Bigarren erantzunik bagea izan da ai! larria. Danak gagoz ixilik, estakigu zer jazo dan. Gerroak esango dausku zer dan gertatu dana, eta emen datorku geroa.

- Urkamendian izan dan gizonari samazurra estututen izan dautson urkagallua apurtu da. Erdi ilda zan gaixoa kendu egin dabe toki aretatik. Ondoan izan dan sendagilleak indar barriz orritu gura izan dau oraindik arnasa izan daualako. Osotu dabe tramakulu ikaragarria. Lotu dabe samatik barrien barriz, estutu dautsoe samazurra ta gorpu-ondar biurtu dabe ekiñaldi onetan. Urkagalluak amaitu dau bere lana, baña ez betirako, odol-egarriak joko dauanean emon egin bearko jako.

42 onein arteto zan, baita Dueson gelakide neban Galdakaoko Ormaetxea-tar Ander. Etzan agertzen elezkoi, kristau otza zirudi, baña eriotzaren aurrean ezta ezer gogorrik, eta Jaungoiko zale, biozdun, aldameneko zori bardiñekoari indar barria emon eta poztuten igaro eban gabonillaren 14tik amabostera-ko azken gaba. Ume txiki ta emaztearen senar zan.

Larrañaga Eibartarra be onein arteko zan. Lagunak baño zori obeko ala txarragoko zan gaitz jat esatea. Lagunak eriotzari paparra jartzera joiazan arte, len egin zan gela ta adizkideen artera bialdua izan zan. Onen etorrerako arpegia gaba neketsuaren ondorengo goizean, aiztu eziñekoa izango jat.

Pozik biurtu zan toki zarrera biotz oneko gizonen baten laguntzaren ondorena zalakotan, baña, Larrañagaren pozak neurri mirrizduna zan. Ala iza-nik, dei barria izan eban gabea, oraingoan betirako juan zan.

### Zelako adorez juaten ziran?

Sinistu eziñekoa bada be, egi biribilla au da:

Ba ziran banaka batzuk amari, emazteari ta umeri didarka ta goitik beraño dardar-ikaraz izaten ziranak. Geientzuenak, baña, bekokia goian, begitarte argi, ezpanak irripartsu, bizarra kendu ta soñeko barriz juaten ziran eztegurako izaten dan aize bardiñozkoi, gora ta goraka Euskadiri

17gn gabareño eldu gara. Egunezko jolas egiteak, sakontasunik gabeko adar-joteak eta itxaropen gaizto aiztu gura guztiak gabaren etorrerak, beti lez, zapuztu dauskuz.

Batu ta biribildu gara bakoitza geure tokira. Txutxumutxu ta keiñuak nabaizen doguz. J. Elorriagaren aurpegira begiratzen dogu, au dogu ba barribatzallea, txarrak diranean bein bere utsik egiten eztauana. Geienok ikusten dogu eta artzen dogu gure zori txarra bakoitzak beretzako. Mataza ariaren musturra azkatuz doa, amuak badaki zein arrain izango dan beretzat.

Egunak lenagotik erabagi gendun baraurik ez eukitea ilteko zana, ez jakiñean deiaren ordurarte. Baña nork, zelan eta non batu naiko indarririk lagu-

nari esateko, «Adizkide: eriotza ondoan dozu, gertu zaitez emen, izango dozuz beriala saierreak eta».

Beste toki baten aitatu dotan errijo-tar Azkarate koronela dogu oraingo au, eta laster deituko eutsoela ta gerturik egoteko esan eutsona S. Andini Elosegi.


Azkarate beste guztiok lez, gaba igaroteko abitxua gertatuten eragoian. Azaleko gogo jostalaria iñoiz baño obea agiri jakon, baña noizik beñera era ontan iñoian: «estakit zergaitik dan, baña susmo txarrak dodaz gaba onetan». Eta Andinik onango esate batean lepoan jo eta diñautso: «Adiskide maite: gogoak ondo jokatzen dautzu, etzaitu saltzen. Zu izan zara gaba onetarako aukeratua eta gertu egon zaitez etorriko jatzun ordurako».

Gizon errukarriak begiak zabal eginda begiratu eutson albiztalariari, eta arnas-zurrutada sakona eginik eta gizontasunaren sena galdu barik, gertu abia ta erdi etzun zan soñekoak erantzi gabe.

Etzun giñan besteak be ta ateko morrolluaren otsaren zai gengozala, emen datoz txori moko makurrak eta dei dagie: «Azkarate!» gorako bategaz zutitu da, gure goibeltasuna ikustean, bera da gure makaltasuna indartzen alegindu dana bera baño gixajoago gengozalako.

Eun aldiz emon euskuan eskerrak euskaldunai ta Euskalerriari ain gizonki aintzakotzat artu gendulako lenengo egunetik azkenerarte. Beragaz eroan ebazan samiñen artean, Euskalerria lenago ta sakonago ez ezautu izan zan.





Egun batzuetan bakea izango dogu, baña bakearen ezaugarriarik iñork erakutsi eztauskun ezker, kez-kati ta prizka larrietan izango gara lo nasai barik orain arte legez.

### Zortzireun

800 baño geiago gara epai astunpekoak begi bata-gaz Derio ta besteagaz Prantzia ikusten dogunak.

Legezko agintariak be badabez eperdibaltz lotuak, gu be eperdibaltzen morroi ta doakabe garan laxe. Agintaritzia biak, ezker ta eskuma, artu-emonetan dira gudari bitzon arteko trukea egiteko baña bi-tartean gure estutasunak eztau atzenik, ez tximeldu ta ez igartu ezta egiten. Amarentzat, etxeko txoko epelarentzat, emaztegai, seme-alaba t.a., beti dogu leku zabala buru-biotzetan. Nagusi maltzur onein guzur-mezurrak dabilkiguz belarririk belarriera iñon diran iñondikoakesaten: gorrien landako gosegarriak, gaixoak, bizi eziña ta makiñe bat guzur geiago.

Alperrik dabiltzaz ba. Eztabe ta izango bez gure gogo ta biotzak eurakanduteko naiko multzurkeri ta zurikeri. Naiago genduke leza-zulo baltzanean

bizi, suge, kundun eta sierpetartean Jaungoikuaren ordezeko buru dirala diñozkuen oneikaz baño.

### Gabon

Urtean danik egunik etxekoienera eldu gara biziari eutsi dautsogunok. Bizkarrean dogun zama arindu gura dogu, etxeari, senide, oiturazko izaten dan orio errea, ilinti bizi ta amaika gauza geiagori leku emonik.

Kristiñau andiagoeziñak doguz jaun, nagusi ta jabe, baña Kristok irakatsitako maitasun ta errukia lagun urkoarentzako, ezta emen agiri. Geu gara poza billatu ta aurkitu bear dogunak. Geu gara alkar lagundu ta maitatuz poza aurkitu bearrekoak. Eta onantxe garratza ta gozoa nastuten dogula, ta ixilka mixilka, Aberriari ta Belengo Aurrari abes-tuten dautsogula gabaren len orduetan, loaren eta amesen besoetara etzun gara.

Gabaren lekuan egun barria loretu da. Kristauntzat egun alai ta bizi-bizia lur lardazka onen zear, eta egunari berea dan giro-usaiña emoteko ainbatzuak dira Jauna artzen dabenak. Bitarteka iru eskutitz egingo dodaz ixil-bidetik kanporatuteko.



Illak 30. Barri pozgarriak barrurantzako bide idigi dau. Espetxe biurtuta dan Karmelotik 25 errikide gizonetzko-andrazko azkatu dabez.

31gn urtearen azken eguna. Arratsaldean autor-kuntza urteari agur ondo egiteko. Asko dira autor-tu diranak. Gau ontan beste gabetan baño azkatasun piritxu bat geiago dogu, eta edontzirik ezean eta edaririk bez, azpillak alkar jo eta klin eginik geure maite guztien osasunarako ta geure onerako, agin-lanean asi gara abesti ta bertsoz gabaren or-durik geienak era onetan emonik.

### 1938gn urtea

Amagaz ta berari lagun egitera etorri ziranakaz alkar-ikustea. A. Santua adiskide miña Españako lurak zearkatuz joiala, gudari doakabez betetako bultzinean il zala diñauste.

Illak 5. Ateak lenen egunetan bazen gogor irauten dabe itxita ta zainduta. Jagoleak, bai alde batetik, bai bestetik, izkiluak bizkarrean, entzumena zorrotz eta begiluze zaintzen gaitue. Baña ezin zaindu dabez zulo guztiak eta ikasi doguzan maltzurkeri asko, eta emen jatost eskurik eskuko M. Urkixoren idazkia, beraren eta giltzapeko emakume lagun barriekaz eta nireak eskatzen.

Illak 7. Aize gaiztoak putz dagi, ortzian odei-ton-tor baltzaz ara-onaka, arpegiak mazkal, begiak lurrera adi. Guztiok dakigu zerbait eta iñork eztakigu ezer. Igitai etxeari inguruak dabil lepoak aukera-

tzen. Sartuko jako barrura: bai. Odol epelaren egar-riz bizi da, eta ezta aldenduko bereak eta bost egin barik. Zenbatzuk izango ete gara oraingoan. Nor-tzuk? Ni bere bai? Itxaronez jakingo dogu.

Gabaren illun baltza gizenduz dator eta argiak motelagoak dirudie. Surru ta marruak tajutu ta itxuraztu dira eta ogetakak artuko dabe biurtzerik izango eztaben bide bakarra.

Auzoko atean doguz mutillak, giltza zulotik begira diñardut. Ezpanarteko txokor sendoak ketan dabez. Txapelgorriak eta atorra baltzak naste dagoz mairailazurrak estu-estu eginda, ez dot iñor ezautzen eta eztakit zenbat diran be. Biotzaren taupada bixi-bixiak josten nabe bularrean, belau-netan indarra galtzen doakit, ezin iraun dot zutik eta etzun bearrean naz. Aupadarik izango ete dogu gure atean?

### Argitu da eguna

Turutak emon dausku goizeroko jagi agindua. Jan dau goizeak gabak gertau dautsen aparria eta armin artega gagoz zer edo nor izan dan jakin guraz.

Busti doguz eztarri legortuak salda baltzez eta betiko tokietan alkartu gara zeñek zein ikusiko edo zein ez ikusiko.

Lagun eta adiskide urkoenari egun on esan eta agurtu garenerako asi dogu goizik geienetako jardunaldia: «Nortzuk eta zenbatzuk izan ete dozak? Ezaunik? zuen gelakorik?». Adizkide ezagun mai-

terik eneban galdu, baña 31 lagun izan dira Ur-tarril onen egunsentian begiak itxi ta plaust egin dabenak lur gogorraren ganera, betirako.

### Anai-arrebak

Illak 18. Emengo gudaren ilketatik igezka Inglaterrara joan ziran iru anai-arreba txikien ikustaldia izan dot. Kantauri itxaso zear ibillibearra izan dabe eta eztabe ezautzen gudaren aginkadarik. Gazteak dira, poztu naz ikustean baña bete-beteaz ez. Atzerritar buztarrira lotuak izango dira, espāñaren morroi geiak dira.

19gn eguna. Egun ontako goiza argi dizdiratsua-gaz jagi da. Soñak jolasa eskatzen dausku, ibilkera txairoagoa dogu. Zer da gertatzen dana? Makiña bat ametsen iturburu izan dogun eguna dogu, truke eguna, 37 katekidentzat bigarren jaiotzea. Zelan eta nork nork neurtu onein poz zoroa? Onein artean doakigu Maximo Espinosa (Errero) Arteaga Arratiakoa. Bajoakuz Prantzira. Azkatasun eguzkiak itsutu dau onein billa egunetik egunera ibili dan eriotzaren begirakada zorrotz kupi gabea, eta aize azkea iruntsiko dabe. Goizetik gabera, baita gaba illutzetik eguna argitzerarteño.

### Ilbeltza - Otsaila

Il onen lenenguan asterako ikertaldia egin dauste amak eta izekoak, emaztegaiak, Mari Zuazo eta Martzelina adizkideak be emen izan dodaz. Erritarrak erritarrak egindako bizkar berotzeak azaldu

daustiez. Narrua berotutakoak osaba Elias, Tomas Zubikoa ta Jose Mari Torreen izan dira. Berotzallea, J. Mari Iruarrizaga (Kotxor) txapelgorria. Mutil onen bizkar azurrak beretarren eztenkada ezautuko dau geroago eta erren-ibilkeria izango dau bizi izango dan arte.

### Agate Deuna

Illak 4. Agateren aurre eguna dogu eta eusko oiturari jarraituz Deun ospetsua goralduz gabiltzaz adizkideen ateetan ixil-mixil abestuz, bakoitza beraren tokira gaba emotera bildu aurretik.

6gn egunean. Barruan bazkaldu dogu eta barruan jarraitzen dogu. Aize otzera urtetako deiaren zai gagozan arte «Agur Jaunak» abestutea asmau dogu, baita abestu be. Onetan ari garela, kartzelako gizona (espetx-zaiña) datorkigu zekorraren botzaz itaunka zeintzuk izan dira abeslariak. Eztau artzen ezelako erantzunik eta odol berotu da artz baltza. Anton Zarrabeitia dogu gelako burua (Lemoarra). Etorbarriaren eskutzar latza Antonen bizkarrean jarri da eta ba daroa nonora ostikoka ta ikubilka belarriak eratsi baiñik. Artzaren indarrak eta jotak Antonen bizkarrean utsitu eta baretu ondoren, eta artuak artuta, emen dogu gure Anton arratiarra bizkar baltz eta belarri matrail gorri irriparrea agertzen dauskula. Arrezkero izilik izan bear izaten gendun.

18gn eguna. Patxi Sautuaren ikustaldia izan dot. Fazisten menpe dago gudari-morroitza egiten eta mendian dabillena dot.



-Kaixo, Patxi: Barri onak ala txarrak?

-Ez larritu, adiskide: garaille jagiko gara.

Oneik lako berba pozgarri ta belarri-gozotzalleak izaten ziran ikustera etortzen ziranenak, eta nik uste, biotzean dogun astuntasuna arintzeagatik esaten dauskuezala.

### Jagole barriak

Jagole edo espetxezain barriak jarri dauskuez. Orañartekoak gogorak eta ankerrak izan ba jakuz, oraingoak ez tira zeru-txoriak, lengoak bazen latzak edo latzagoak doguz. «Mitxelin» izenagaz ezautzen doguna da gure bizkarren laztangarri, idizillari dantzatan erozoten polito daki, lan au ondo ikasia dauka. Eztakigu zelan izango dauan soin estaldua, agirian eztaukana, arpegia, baña, zornez ondatua agiri dau, erdi-ustalduta lizunkeriarren ezaugarri.

### Epaila

Illak 3.- Lagun barriakaz bete dauskuez nasai egiak ez doguzan txoko, ertz eta basterrak. Eriotz lokarri-petuak doguz.

7a.- Ikoka, goragoraka ta pozez gagoz. «Balears» fazista guda-itxasontzia urperatua izan dala di-nauskue.

8gn. Ikustera etorri jatan emakumearen ixileko orri idatzia artu dot, otzaratzo bat beretzat egiteko eskatzen daust. Esku-lanezko gauzatxo politak egiten doguz bizikera baltz gorria aiztuten dogun aldietan.

Ezin izango dot bete emakumearen naia. Galerazi dauskuez jolas bezela egiten izan doguzan lantxoak.


Illak 9.- Eriotz makurrak ara ta ona, ona ta ara biraka egiñaz geroago ta estutuago egiten dausku ilketaren uztaia. Orainarte bein bere gezurtatu ezin izan dogun izpar baltza goitik berako abiada errezean datorrigu 35 dirala esaten urrengo ekitaldirako.

10.- Atso izpar garratza egia biurtu dan bidean aurrera joten dator. Ordulariaren arpegi zurian gabeko amarrak dirala ikusten dogu. Une larrian bizi gara, geldi egon eziña dogu. Aldameneko atietan kirrizt-karraztak entzuten doguz, eta gu, noiz etorriko zai gagoz, mozolloak bazen zabal begiak zabaldurik ateari adi.

Otsorik ez dogu izan gelako artaldean, ondokoen artean zer edo zer gertatu izan dala ondo dakigu ostera. Eta atepak idigi dauskuezanean azkarrengana jotzen dogu auzoken bat ostu ete dauskuen jakin minagaz. 29 izan dira gabezko gizon lapurrak Deriora eroan dauskuezanak. Illaren amaikagarren goiza da eta ezaunik ez dot izan il dabezenen artean.

11gn goiz onek ez dau agiri pozkarizko girorik. Igitaiaren mustur zorrotzak zorrotz agertzen dauskuz ortzak, goseti dirudi. Orduak zelan aurrera gure indarrak alan lurrera, iñoixko makalen.

Txutxu-mutxuak eta zurrumuruak berrogetakak garala diñue, baita ziur-ziur, gelakideren bat be badala. 9an aldera ondo ta argi dakigu zein izango dan ondotik kenduko dauskuen lagun maitea. Deitzera etorriko diran baño len, erabagi zarra bete bearko





dau norbaitek, jakin-arazo bearco dautso.

Andoni aurretu da gaxo onengana be, eta sorbaldan eskua ipiñirik eta maitekiro diñotso «Adiskide, ez erantzi soñekorik lo egiteko, ire gaba dok eta egon adi gertu».

Bizitzaren bizia laburtuta ikusten dauan gizonak eztautsoe emon garrantzi geiegirik entzun dauzan berbai, eta, lurrean dauan lo-abian jarririk eskutitzak idazten diñardu. Emaztearentzat eta adizkideen batentzat dira, nasai ta baketu dirudi. Amaitu dau eskutarteko lana, ipuñak esaten daragaio eta pozik dala dirudi aurrea artu dautsoen lagun ilda-koakaz alkartuteko.

Gaberdiko amabi dangada otsakaz batera tajatu da giltza berarentzat egiña dan zuloan. Bira bigaz atzeratu dau ormaren zuloan sartuta egon dan burdin-musturra, aurreratu dira gizon biotz gabeak eta betirako galduko dogun adizkidearen izena uguzi dabe errukirik barik eta arrokeriz. Gertatzeko diñoetse, baña gure gizonak eztauka zer gerturik, eta gertua dagola erantzuna emonik eta gelditzen geranoi beraren gogo alderako otoitzak eskaturik, agur dagizku benetako epai-egunarte.

Leturia-tar Joseba da eroan dauskuen gelakide adizkidea. Lekeitioko batzokiko lendakaria. Emaztea ta ume gazte bi laga dauz lur onetan.

27-k lagundu dautsoe Leturiari. Andrazkoak izan dira bi, eta onaitako batek 40 eguneko umetxu itxia dau.

## Il naiz bizi

Kristoren ezaugarria paparrean, Kristo ezpanetan eta Kristo toki ta ordu guztietan dabillaienak egiten dauskuezan trizkantzak ikustean, Jaungoikua- ren ganako sinismena galdu dabenak be ba doguz. Batzueri bardin dautse il naiz bizi, beste batzuek barriz naiago dabe ainbat lasterren il.

Orozkoko seme zan, urtietan 60tik gora eta bere abizena Lekanda. Zillarrezko diru apurren bat etxean aurkitu eutsoela ta gugana bialdu eben 6 urtean giltzapean izateko. Eguneroko alkar ikustietan eguneroko alkarrizketak izaten genduzan.

Umetan zerbait ikasi genduanok lez, beste munduari, il da gerokoari, bildur eutson. Baña, ikasiak ikusita, sinismena galdu ebalu, zerua ta inpernua umientzat egindako ipuñak zirala, eriotzagaz guztia amaitzen zala a.t.a. esaten asi zan, bai ta, bere burua

ilteko asmoa ebalu be, obe zala ba, zenbat azkarrago il 6 urtean zorrien janari izan baño.

Igandez jazo zan. Beartuta gengoan, sinismendun eta sinismen bako, meza entzutera. Lekanda, meza entzuteko, gorengo bizilekura igon zan, eta meza amaitu besterik ez, egotzi dau burua, jo dau beko bee gogorra ta zatitu da inguruko ormak odol txipristinez bete ta orbandurik. Lekandak bete dau bere ametsa illaren 13gn. 15gn goizean lau izan dira urkatuak. Zeintzuk eta nonguak izan diran ezin ezin dot jakin. Arratsaldean aukeratuak urkatzeko sei izan dira, baña, zerbait gertatu da ta, eztabez il.

16.- 68 dira eriotzaren astuna arinduta ikusi dabenak. Onein artean da Ugarte´tar Patxi (Txoko) Areatzako, Billarokoa.

Adiskide au be bereak eta bost geiago ikusia da. Bein, gaba baten, orain bat eta gero beste bat, erreskadan egon ziran lekutik alde bietako lagunak kendu eutsoezan. Zer nabaitzen eta eban kolkoan? Bear dan bezela azaltzea elitzakit izango lan erreza.

19.- Joseba Deunaren eguna. Lekandaren eriotzari ondo eretxita edo..., zorrien abi ta janari zan andaluziarrak erabagi bardiña izan dau: burua jaurti. Jaurti da ba, baña une-uneko damualdia izan dauala dirudi: eskegita gelditu da. Eskua ezarri dautsoe egin daua- nagatik zigortzeko, eta ondo be ondo idizildu dabe azur utsak ziran saietstarteak odolgorritu arteño

25.- Pozaren jabe gara barrero be. Eztakigu loretuko dan, baña itxaropen ona lagun ona dan ezkeru eutsiten aleginduko gara. Gorrien giltzapeko diran zuriak onuntz bialduz gu aruntz bialduko gaituela diñue, ala diñogu? Dana dala, astirik galdu barik, pozez eta goragoraka emen gabiltzaz gauzarik bearrearrenak biribilduten txoria eskuetan bageunka lez.

## Jorrailla

Aunitz, asko izan dira betirako joan diranak, biur- tuko ez tiranak. Geiago gara oraindiño praka estue- gietan bizi garanok, biotzaren taupada garratzak baretu ezin baretu doguzanok.

Orduak luze, egunak urduri ta gabak larriak. Sabela gosez, gogo azkatasunaren egarriz, begientzat nas- kagarri egin diran ormatzarak aurrean, idizillaren keriza orpoan jarraika. Orkoro atzazabal bigundu- ta zorriak ilten eta arri ta ol gorreraren ganean lo egiten azurrak minduta, jorraillaren laugarren ga- beraño eldu gara.

Gaba ontan turuta-otsak datorruz etxearen lau alberdietatik. Eztakigu zer gertakizun adierazo gura dauskuen, eta larrialdi bat geiago nagusitu da. Tokien batzuetan triskantza egiteko deia zala usterik, gabarik geiena emon dabe itxarrik eta gerturik, atatera datorrenari aginak erakutsi ta alkar ilten ilteko. Francoarren Lerida menperatzearen ezaugarriak izan dira barteko turuta joateak, ezer txarrik ez zan jaso.

9gn ezkontza bat izan gendun. Zelan galdu dodazan egunkariaren ainbat orrialde, emen amaitzen dot gaurdaño ikusi, entzun eta egin dogun edo izan dogun bizikera. Aurrera noa, baña, Burgosen emon gendun aldiari zerbait eskatu ta zeaztasun geiegi-korik barik azal-azal argitaratutera.

## Burgos

Bilbon gagoz oraindiño, Jakoba deunaren goiza da ta izen-zerrenda luze luzea irakurri dauskue.

Izentatukako guztiok besteakandik banandu ta bialdu gaituez. Illazki ta lastakiñezko lo-abiak, jan-ontziak, estalki berrogarriak e.a. artzeko be agindu dauskue eta gertuak gagoz aldakuntza barri onen jakin-miñak jota.

Lokarri pilla agirian dago, eztakigu zer asmotarako. Asi dira lokarriak azkatzen eta oneikaz eskumuturretatik lotuten gaitue. Bakoitzak aldogun eran bizkarreratu doguz geure tresnatxoak eta Zabalbide aldapea bera garoardiez txapelokerez esituta, Norteko bultzin-geltokira.

Emen, abelgorri, zaldi, asto ta txarriak bagiñaz le-txe sartzen gaitue buzpurdietan. Ezkurik eztauskue azkatu eta burdi bakoitzaren ate erdi idigian sugegorri bi doguz: txapelokerrak dira.

Buru egiten dauan burdia asi da aurrerantz indarka fut, fut egiñaz, eta atzetik lotuta daukazanak ixil-ixilik eta leunki jarraitzen dautsoe aurrelarien indar egiteari. Zein bide artu dogu, nora garoardiez, zertarako ta noizarteño? Aldiak dau erantzune.

Bultziñak aurrera dagi bere bidean, eta, fut, fut neketsuan, guraitu dau Orduñako aldapa gogorra.

Agur, Bilbo, agur, Bizkaia, agur Euskalerrria. Bi-garren aldiz ezautu bearko dogu Kastilla legor eta latza. Amorde biotz gabe onen otsein eta doakabe izango gara urtietan.

Kastillako galondo lur billuztuak zearkatu doguz eta Burgos, uriburura eldu gara. Lurreratu gaitue, eta biñaka lotuta gagozan arren, seinaka lotuten gaitue eskumutur bitarteetatik eta aurretik atzera beste lokarri luze bategaz alkaturik. Era onetan be igez egin geinkelata, beste lokarri bat geiago jartzen dauskue besotik besora inguru egiñak, eta, «aida» entzun dogun bazen bizkor aurrera goaz, oinpean astintzen dogun auts gorri igarra eguzki galdagaz batera iruntsiten dogula.

Ormak baño besterik agiri eztauan zerbait ikusten dogu begien aurren, gure bizileku barria da.

Amaiera

**Anton Landajuela**



# Lourdes eta Paulo´ren Urrezko ezteguak

Eta txangolaritasunezko – saria

1963 – 2013

Praga, Budapest ta Biena´tik zear II.



1.989-1.990 askeneko urteen amaiera eta asi barrietan, Sinatraren Irakaspidetzazko indar eta irauteakaz, arindu ebezan sortu ziran gizartezko aldaketak, eta aldigaizto-tu, Europaren Ekialdetik egon ziran Sobiet-aldeko Gizartekerizko<sup>(1)</sup> jaurkintzak.

Orduko Europaren Mendebaleko jaurkintz barriak, bereala alkartu ziran Komekon eta Barsobiako elkargoek ezereztu ebazan aldekoak, Sobiet´en Elkartekoak on artu ebena.

Eta 1.991eko urtean Uztaillaren 1ean, Txekiaren jaurkintzazko arduradunak Pragako Urian batuta, ezereztu ebazan bakez elkargo bi orreik.

1.992ko Abenduaren 16an Pragako Lege-Biltzarra batuta eta 198ko autarkitik, 172ko baitzezko autarkiakaz irabazi zan, Praga, Txekiako Uri nagusia izan edin.

1.993ko urtean eta bakez, Txekia ta Eslobakiako errepublikaren laterritasuna ezereztutea erabagi zan eta Praga, Txekiako errepublikaren Uri-Nagusi lez geratu zan.

2.000ko urtearen Iraillan Pragako errigizarteak, Munduko Diru-Etxeak eta Erriartearen Diruz-Erantzuteko kutxa Nagusiak<sup>(2)</sup> gura eben Nortasunbageko-Batzongotasunaren aurka urtenda matxinatu ziran errizaingoa-aren aurka, ta 15.000 egerkide baiño geiago alkartu ziran **diru-zalekeri ta nortasun-bageko batzangotasun orren aurka.**

2.000eko urtean Pragako Uri-Nagusian eta Txekia-aren aberritasunezko aolkularitzaren Batzar Nagusia-aren agiritan erabagi zanetik, Pragako Uria **Laterri**<sup>(3)</sup> biurtu eben, eta orren esan naia, Laterriaren eskubideak Uri-Nagusiarenak zirala esangura eban.

2.002ko urtean Moldaba ibaia gaiñezkatu zan 5.100 m<sup>3</sup>/erlojuaren orratz takada<sup>(4)</sup> bakoitzean, Pragako Urian ainbesteko kalteak egin ebezanak, urte bi bear izanda kalte orreititik birjabetzeko.

### Uriaren jaurkintzan:

Uriaren agintari nagusia, Alkatea da.

Eta Uriaren ardura iru banakaritzagaz jaurkintzen da:

- Pragako Uriaren batzarra, 70 arduradun daukazenak.
- Pragako Uriaren Aolkularitza, 11 arduradun daukazenak.



d) Eta Pragako Udaletxea, egilletasunezko ardura daukenak.

Lau urteko epean egiten dira Pragako autamenak.

2.010eko urtean aukeratuta, gaurko Aberri-Demokrataren alderdikoa dan Svoboda´tar Bohuslav Alkate jaunna da.

2.006ko urtean Pragak, ainbat bigarren maillako ikastetxe-gain, leen maillako 10 ikastetxe nagusi ta eurak daukiezan 38 ikas-sail ezberdiñekaz daukaz 87.500 ikasle, eta Europa erdiaren jende-kuntzazko arloetan beti izan da, Uri-garrantzienetariko bat.

(1) Sobiet-aldeko Gizartekerizko jaurkintzak = *regimenes socialistas de tendencia Sovietika.* (2) Erriartearen Diruz Erantzuteko Kutxa Nagusia = *Fondo Monetario Internacional.* (3) Laterri = *estado.* (4) 5.100m<sup>3</sup>/erlojuaren-orratz takakoan = *5.100 m<sup>3</sup> por segundo.*



Pragak, amaibako erakustoki, musikaldiaren jauregi-etxe, Pragako Laterriaren antzerki-etxe, Pragako San Bito gazteluan egin zan gotzai-eleiza, Tyn Ama Birjiñaren eleiza, Ginder ta Fred edo dantzari-etxea, Wenzeslao´ren enparantza eta abarrezko etxe ta toki-ederrak daukaz.

Danak etzagintza ederrenean eginda, Kafka´tar Franz idazle ospetsuaren erakustoki ederra artean dala.

Kirol arloetan, ondo eraikitako toki ederrak daukaz, ta munduan aundiena dan Strahov jolastokia 220.000 biztanleentzat eginda dagoena, eta bertan egin ziran 1.924ko Olinpi-jolasak, 2.016 urterako be aukeratuta egon dana, eta atzeratu zana.

Bai-ta 2.004ko urtean Szarka Arena jolastoki olinpikoa, gizonezko izotz-olinpikoaren munduko txapelketarako egin zana eta abar.

1.937ko urtean lau urten-bideagaz egindako egazkiñaren-zelaia be badauka Pragatik 10 kilometrura dagoena, ta 2.005eko urtean 10.800.000 egazkiñeko-bidekari ibili dabezanak.

Gaur, Europako Batasunaren 11garrengo tokia dauka, bere errigizartearen aberastasun gora-beran. Praga´n egin gendun txangolaritza.

2.013an Urrillaren 13ko Igandean goizeko seiterdietan urten gendun Zornotzatik M<sup>a</sup> Lurdes gure alaba zarrena berebillaren gidari zala, Loiuko egazkin zelaian 7retan egoteko, eta eroan genduzan bide-zorro edo pardelak, Iberiako gorde-lekutik egazkiñeratzeko.

Loiutik 8retan urtenda, 9retan eldu giñan Madrillera, eta bertan lau ordu itxaron eta gero, 13´10etan Madrilletik urtenda, laurak ogeita-ambost minutu gitxiagoetan Praga´ra eldu giñan.

Berton euki gendun Trabeplan´eko arduraduna eskuak altzauta txartel aundi bat agirian eukela itxaroten, eta zorroak gorde-lekutik artuta berebil-busera igonda CROWNE PLAZA´ra eroan genduzan eta bertoko ostal-etxe edo arrotzetxera, Lourdes eta niri 536-C gela emonda.

Arratsaldeko 8´retan osta-etxearen beko areto nagusian batu giñan danak, gidariaren aolkuagaz oartzeko, eta arrituta geratu nintzan diruaren argiketak azaltzen asi zanean, bertokoak diruaren aldakuntzazko biribilkeran beti irabazle agertzen zirela esan eban orduan, bertokoak lege ori alan euki ebelako ezarrita, txangolaritzaren arloetatik Pragakoentzat diru geien atarateko.

Nire gogoan enebazan onartu oarkizun orreik, ara ikustera joaten zirenak, diruaren elburuagaz nastuta egon zala esaten euskulako, eta zentzukizun orreik txangolaritzarako eginda dagozela esangura dauan lez, diruan ipinten dozu oarkizun geiago bertoko edestian baiño, eta geiago, diruagaz kontuz ibilteko esaten dautsoenean.

Koroia da bertan erabilten daben dirua, eta kontu aundia euki bear dozu euroagaitik aldatzen dozuzenean, euren-alde jokutzen dabelako beti, baita diru-zorroa non izten dozun be kontu aundian euki.

Zortziterdietan joan giñan jantokira, eta bertan asi giñan euki genduzan maikidearekin adikidetasunezko ustean edo ezagutzezko artu-emonakaz.

Gidariak, euki gendun batzarrean, gela bakotxean diru-kutxa euki gendula esan euskun lez, arrerako mutil bateri gaillu orren ibilkera itanduten joan nintzan eta bere jarduera zein zan jakinda, gelara igon gendun biok.



## 2.013an Urrilla´ren 14ko bigarren eguna.

Goizeko 7´1/2etan gosaldu gendun, eta 8´1/4renetan sarrerako gela nagusian batu giñan, gidariak baktzari, irrati txiki bat emonda samatik edo kokotetik eskegita eroan daigun, eta eukezan belarriko gailluakaz, bera gure aurretik joanda esaten ebana entzuteko.

Gidaria berba egiten asita, Praga, *Urrezko-Erri edo Eun Goil-Erdiko*<sup>(1)</sup> *Uria* esaten eutsoela esan eban, eta lenengo ikusiko genduna Hradcany gaztelua izango zala.

Gero *Strabov´en lekaidetxea, gongotzai-etxea, eta Loretoko Enparantza* ikusi genduzan.

Aurrera joanda, *San Bito´ko Eleiz-nagusia, bertoko erregetzaren* bi-txiak gordeta daukezanak, antziñako *Errege-Jauregia* eta erriak daukan Urrezko Etxe-Bitarte zoragarriena.

Ainbat bider entzun gendun *Nepomuzeno´ren* izena eta Kantinflasen pelikula *El Padrecito´gaz* gogoratzen nintzan, eta gero jakin neban *Kaazapako* lurralde baten izena eta bai *Bolibar´eko* erri baten izena zala.

Bazkaltzera joan giñan, eta arratsaldean Uri-txikerra edo *Mala Strana´*ko izenagaz esagutzen dan errekaldeko inguru ori ikustera joan giñan, *San Nikolas´en* eleiza, *IVn Karlos´en zubia*, eta Uri-Zarra edo *Stare Mesto*, Uriaren enparantza nagusian dagon *Izarren-Erlojua, Udaletxea, Bolboraren dorrea eta Wenzeslaoren enparantza ederra*.

7´retan antzerki-baltzazko adierazpen mutuan, *Aliziaren-Ikuspén* politak ikusi genduzan.

9´retan Truhla ibai-ontzira igon gendun, eta auspo-soiñulari baten doiñuagaz afalduz batera entzuten eta jaten joan giñela Moldabako ibaitik Pragako Uria alai ikusten, *Aliziaren Mirarisko Errria ikusten gengozala iruditu geinkezen*, soiñulari ura ez ba eben eten bageko ekintzan garagardo geiegi eran eta jateko atara euskuezan lursagar erregosiak, gixienez, lau egun ariñautik ez ba ziran erregosi edo prejituta egon.

## 2.013´an Urrilla´ren 15´eko irugarren eguna.

Gure naikeriako eguna izan arren egun au, gidariak aurkeztuta autamen edo aukerazko bidai eder bat egieko alegindu euskuen, eta danon baietza artu eben.

Goizeko 7-1/2´etan gosarituta eta zorroak buseko fardelkarian sartuta 8-1/4renetan urten gendun, goiko mendiaren ibarrean eta biktoriano-baratz eder artean egon ziran ur-etxe ederrak ikustera.

Karloby Bary´ren Urastegi´ko Uria´ren izenagaz ezagutzen da inguru ori mundu guztian, eta bertara joaten ziran Beetoben, Batx, Goethe eta ainbat jende osasunaren billa.

Berotasunezko 72º eta 12m. gaiñ-alderaiño zorrotonean urtetan dauan ura be ikusi gendun, eta berton zaltzen ebazan bonbiletan ur ori sendagarri lez, ondoren Pupp Arrotz-etxe Aundia, antzerkia eta abar ikusita, bertoko *Juan Male Bersalles´eko* jatetxean bazkaldu gendun, eta arratsaldean Boemiaren leiar edo kristalezko irudiak erosi ta salerosteko dendak ikusi ondoren, bu-sera igon gendun Pragan gure arrotzetxean afaldu ta ogeratzeko.

Eta au izan zan Pragako Uri ederra ikusten emon gendun denborea, arrotzetxe eder bategaz gozatuz.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.013´an Abendua´ren 11´n



(1) Eun-goialdiko Uria = la ciudad de las cien cúpulas.

# IZADIA ZAINDU

## EUSKAL TOKI-IZENAK

## MUNDUAN ETA

## EUSKAL EDESTIA XII.



### 4.2. Erromatarrak Europara ekarri ebena.

Erromatarrak, gudalari edo borrokalari aundiak izan ba ziran be, sekula ez ziran izan erri bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo ta ibili ziran erri guztietatik egon zan baliozko mozkin guztia eurentzat artzen eben, erritarrak morroitasunera galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba ziran be, euren menperatzaile asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan Erromatar Bakea ?.

Greziako erria, menperatuta geratu zan gudalozte eta politika arloan erromatarren bultzadagaitik.

Greziatarrak, Euskalerrriaren lurraldeko batzar nagusien antzera, sekula ez eben artu nazioaren ize-na, euren Uri nagusitik kanpo. Gogoan euki ebela-

ko, Ludi onen berezitasunezko lege indarrak zelan jokatzan dabean giza ta errigizartearen Berezko Nortasunetan.

Mailla aundiko ulermena lortuta jakintza orreitan.

Eta danon Nortasunezko ardurak jaurkintz zaintzeko euki eben antolamenduzko oitura, itzarmenekoia edo elkargokoia izan zalako, sekula ez ziran joan Laterrizko Uritik gora.

Denbora aietan eta gaur be, berezko antolakuntzatik kanpo, nai Euskalerrriaren lurraldeko batzarrak eta Griegoaren elkartasunak, geiagorik bear ote eben ?.

Erromatarrak asmakizunez euki eben menperatzailetasunezko katolikotasunaren eritxiagaz indartuta, eta Europako errigizarte guztiak banaka Jainkoari begira eta erri lez Nortasunezko antolamenduan euki genduzan ordezkariartzarako ardu-



ra demokratikoak, erromatar oneik odolkeriz eta ezereztuteko alegiñetan, zirriborrotu baiño ez egin eben altxor aundi ori.

Orregaitik, Greziatarrak gai lez menperatuta geratu ba ziran be, erromatarrak euki eben bemaillako edo zentzungabeen aundikerizko ulermen ori, beti egon bear izan eben Greziak bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, jakintzazko zentzun aundian kokatuta egon ziralako.

Erromatarren arrokerizko asmakuntz orreikaz, beti sortzen dira eztabaidak gauza bien artean aukeratu bear dogunean: Gai onetan sasijainkotasunean aundiak izan, ala Jainkoak Ludi oneri erperatuteko Legean ondo adierazpendutako lotsagizunean bizi.

Erromatar oneik, leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurak eta gizarte guztiak menperatzen asi ziran, danok, euren errege ta eurak asmatutako jainkoen agindupean egon gindezan.

(1)Iraspen=institución.

Andik oraiñarte katolikotasunezko alderdikieran sendotuta, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko “veni, vidi, vici” jokoagaz, euki eben batzangotasunezko asmoa, betirako izango zala uste eben.

Zertarako gura dabez, dan guztiko gizaren erantzuteko ardurak, batzangotzeko asmatu eben iraspenean<sup>(1)</sup> edo ta esku bateko agindupean batu: Dannon ordezeko arduraren lanak, eurak beteteko ?.

Ezinezkoa da ori.

Danok, ordezeko ardurak orreik, gizartearen zentzunezko antolamendu on baten ordezkatzeko jaiotzen garalako. Antza baiña, batzuk uste dabe, gailudi onentzat Egilleen oiñarritutako aginduak ez diralako orreik, norabideko naaste borrate baten agertu gara, nai erri lez, bai izkuntz lez.

Zergaitik ? : Izkuntzak eta erriak euren Nortasunezko Berezkotasunean diralako tresneri ederrenak Jainkoari ulertzeko eta Beren agindua ekan-

duz ta orekan zaintzeko, zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on baten.

Asken baten, asmakerizko ekintza orreik izan dira len eta gaur, erromatar katolikotasunaren amets ta indar guztiak suntsitzen dabezanak, gizon emakumeai olako eritzi bidetik, gaitzberako baitan<sup>(1)</sup> kokatzen gaitulako.

Gaur, European eta Euskalerrian batez be, oraindiño daukaguz gure artean fazista indar orreik, zentzunezko arrazoia ez dabena izten bere lekuan kokatu daiten.

Baiña uste dot denbora gitxirako izango dala: Jainkoak bereztutako legearen aurrean, euren maltzurereko guzurak, nabaritasun guztiagaz suntsitzen<sup>(2)</sup> diralako.

Ala, Munduan beste irugarren odolkerizko sarraski aundi bat egin, antolakuntzak len maltzurereko asmakizunetara erroteko ?. Ori zan, Munduko bigarren guda nagusia sortu ebana.

Aukera ori be ezinezkoa biurtu jaku, iñorentzat ez dalako egongo urten biderik.

A ta guzti, gaur Munduko gizartea artegatzeko daukien aukera bakarra, diruan dago. Ostondu edo eta beren bideak moztuta, errigizarteari irauzi edo errotik atara<sup>(3)</sup> egiten dautselako, errigizarteak guztiz noraezeko urduritasunean kokatuta.

Luzaro ?. Aukera orreik be, epe laburra daukie, Mundu ta onen gizartearen baita, leen beren bazezko lekuan kokatzera joango dalako.

Ori da arrazoi aundiena, gaur iñork ez dagian izkizkiz erabili, eta askoz gitxiago gure Euskalerrian.

## 5. Godoak.

Godoak ez eben denborarik euki, erromatarren ereduazko menperatzail alegeñakin kaizertzazko asmakizunak sendo ezartzeko, eta Europa osoan emon eben denbora guztia, borrokan baiño ez eben ibili.

Ardura aundiz egin ebena baiña, Ekialdeko erromatar Arkadioren seme II Teodosio kaizertzak<sup>(4)</sup> argitaratu eban Teodosioren lege bilduma eta I Justinianok<sup>(5)</sup> beren Corpus juri civilis<sup>(6)</sup> batu ebenez, II Alarikogandik asi ta 506n urtean, Romana Bisigotorun<sup>(7)</sup> legearen laburpena argitaratu, Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Leobijildo<sup>(8)</sup> konturatu zan erromatarren antzera, oneik katoliko Kristautu eben alderdian euki ebela aukera bakarra, euren kaizar-mende asmakizunak aurrera irauteko, eta bere seme Rekaredo limurtu eban Arrianismoa baztartuta katolikotasuna besarkatu egian, indartuz, euki ebazan elburuak garaipentzeko.



(1)Gaitzberako baitan=presos de un ostracismo vicioso. (2)Suntsitzen=desaparecer, disiparse.(3) Errotik atara=desencajar, desquiciar. (4)568-586. (5) 516-601.(6)Corpus juri civilis = código de Justiniano. (7)Romana visigotorun = breviario de Arriano. (8)Leovigildo = 568-586.





I Rekaredok<sup>(1)</sup>, 587an Arrianismoa baztartuta eta 589an katolikotasuna besarkatu ondoren, Toledoko IIIgarren Eleiz Batzar Nagusia batu eban bere agintupean, ta ortze emon eutson indarra ostera be, erromatarrek Mundu onentzako errege eta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari, ortik aurrera, Toledo kaizartzazko Iri lez ezarrita.

Eta Europaren Mendebal guztiko agintaritzak ortik aurrera, sortu edo eta egingo ebezan jaurkitzazko antolamendu guztiak, iru baldintza oneikaz beartuta geratu ziran: Greziaren jakituria, Erromatarren Legea eta Eleizaren Katolikotasuna.

Berez ezin leikezanak inondik inora eskondu, Greziaren jakiturizko Demokrazia ezin leikelako bateratu beste biekaz, oldozmeneko eritzian guztiz aurkakoak diralako.

Askatasunaren Demokrazia ezin dalako Menperatzailletasunaren asmakuntzazko ekintzakaz zorro edo zaku bardin baten sartu.

Godoak, len Arrianoren eritzian eta gero erromatar katoliko asmakizunakaz aurrera eginda, beti borrokan ibili bear izan eben eta Euskaldun Demokraziaren zentzuzkoagaz batez be.

Aukeratzen zan euren errege barri bakotza jaur-alkian ezarri orduko, beti egon ziran beartuta: “et domuit vascones esatera”. Guzuz utsa izan zana.

Esan oneri Aita Santiago Onaindiak eta Olazartar Martinek erantsunda, batera esango eben: lujuria exuberante.

711an Mauritarrak etorrita, godoak suntsitu ziran, baiña asmakizun orreik Pelayok (?) Asturiasera eroanda<sup>(2)</sup>, andik eta katolikotasun bidetik asiko zan ostera be erdi ugarte onetan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago<sup>(3)</sup> ekiñaldi gogorrean asi, mendeko eritzi orreik lortzeko.

## 6. Erdi Mende au, Mauritarrak artean dirala.

Edestiaren jakintza antolamenduta egokitze-ko, edo: 476an Godoak Erromatarren Mendebaleko kaizertza ezereztu ebenetik, Turkoak 1.453an, Konstantinopla menperatu eben arteko aldiari, Erdi Mendea dala esaten jako.

(1) I. Rekaredo = 516-601 (2)Pelayo baiño, nik uste dot eleizaren katolikotasuna izan zala. (3) 1.453.

Edo ta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola<sup>(1)</sup>, irarritzeko papera<sup>(2)</sup>, bolbora edo lerrautsa<sup>(3)</sup>, itsas orratza<sup>(4)</sup>, itsas ontzientzako oial mugikorraren asmaketak lortuta, Amerika agerketaren ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas billaketararte be, esaten jako.

Bai, pizkunde<sup>(5)</sup> edo ta Eleizak Luterotar Martinekin asita euki ebazan berrikuntzazko<sup>(6)</sup> arazo aldiak deritson arte.

Goiko ta beko mende aldietan banatzen da Erdi Mende au, leenengo gizaldiak goikoarenak esaten jakozenai eta bealdekoak askenekoari.

Goian ikusi dogun lez, esan leike Metal aldi edo Arotik aurrerantzean, Sargonon gandik asita jendekuntzazko jakiturian<sup>(7)</sup> garaipentzen zanak, eskubidea ta indarra eukala besteak menperatzeko eta alan sortu ziran Siria, Ejipto, Greziatik zear, Mauritarron garaipeneraño.

Mauritar onen asiera K.a. 1.000 urte gitxi gora bera sortu zan.

Onok be bardiñ gura eben egin, baiña artean Erromatarrak K.a. 753 urte ariñoago jaio ziran eta K.o. 325ean Konstantino I San Silbestre Aita Santuarekin batera Nizeako batzarrean beste zeaztasunezko eritzi bat emon eutsen mugi aldi oneri, Mundu

guzti au kaizar eta Aita Santu baten agindupean batzangotzeko.

Ortik aurrera gaur arte, ikaragarrizko lasterketa bat izan da, Jaungoikoak Ludi oneri Berezitutako<sup>(8)</sup> legegaren aurka.

Mauritarrak 711n urtean Europara sartu ziranetik, antolamenduzko guda indar aundiekin asi ziran euren asmakizuna garaitzeko, baiña ikusi dogun lez, Poitiersera elduta, Marteltar Karlosek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon, eta euren 781eko urtetan gure artean egonda, XIIn gizaldian berakadan asita, 1.492ko Urtarrillaren 2an Granadaren menpetasunezko itunerarte iraun eben.

Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraño eldu da.

Euren izkuntza ezarri naian, toki izenak be alegindu ziran aldatzen, adibidez: Guadalajara ibaiaren len edo Euskerazko izena arriaka edo arriaga izan zana, eurak guad-ilhijarah<sup>(9)</sup> esangura bardiña daukan izena ipini eutsoen eta gaur bertatik datorren Guadalajara izenagaz geratu zan.

**Atutxa'tar Paul**


*Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15éan*



(1) Irarkola = imprenta. (2) Irarritzeko papera = papel para imprimir. (3) Lerrautsa = polvora. (4) Itsasorratza = brujula. (5) Pizkunde = renacimiento. (6) Berrikuntzazko = reforma. (7) Jakiturian = civilizaci3n. (8) Berezitutako = naturalizado. (9) Guad-Ilhijarah, mauritaren izkuntzan = arriarenerreka esangura dauana.

# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsalak



## Sudoku

	5						4	
6				2				3
		3	4		7	9		
		7	5	9	8	4		
2	6						9	8
		8	6	4	2	3		
		6	1		5	2		
9				6				4
	8							3

5	3	9	7	4	6	3	5	1
4	8	2	9	7	4	6	3	5
4	9	7	5	2	6	3	1	8
4	3	6	1	8	5	2	7	9
5	9	8	6	4	2	3	1	7
2	6	4	7	3	1	5	9	8
3	1	7	5	9	8	4	2	6
8	2	3	4	5	7	9	6	1
6	4	1	8	2	9	7	5	3
7	5	9	3	1	6	8	4	2

### ARRPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Goazen mendirik mendi,  
euskotar gazteak  
goazen aldatzaz gora  
mendigoizaleak.

Aize osasuntsuaz  
bizitza indartzera  
aberri guztiari  
agur egitera (Bis)



**Butroiko Gaztelua | Gatika**